*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria*

*El Lehendakari del Gobierno Vasco*

Lehendakariaren 16/2025 DEKRETUA, ekainaren 25ekoa, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiko titularrari Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren presidentetzarekin lotuta Lehendakariari esleitutako eskumenak eskuordetzen dizkiona.

DECRETO 16/2025, de 25 de junio, del Lehendakari, por el que se delega en la persona titular de la Secretaría General de Acción Exterior y Euskadi Global el ejercicio de las competencias atribuidas al Lehendakari en relación con la Presidencia del Consejo Vasco de Cooperación y Solidaridad

2014ko urriaren 21eko 197/2014 Dekretuak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren 2008ko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 3. artikuluaren 1. paragrafoa aldatzen du. Horren arabera, ezartzen du garapenerako lankidetzaren arloan eskumena duen Jaurlaritzako kidea izango dela Kontseiluko presidentea. Kanpoan edo gaixorik egonez gero, Idazkaritza Nagusiko edo garapenerako lankidetzaren ardura duen Sailburuordetzako titularrak ordezkatuko du.

El Decreto 197/2014, de 21 de octubre, modifica el párrafo 1 del artículo 3 del Decreto 158/2008, de 16 de setiembre del Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo, estableciendo que estará presidido por la persona miembro del Gobierno que sea competente en cooperación para el desarrollo. En los casos de ausencia o enfermedad, le sustituirá la persona titular de la Secretaría General o Viceconsejería responsable en cooperación para el desarrollo.

2024o otsailaren 15eko 3/2024 Legeak, Lankidetzari eta Elkartasunari buruzkoak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izena aldatzen du; lege horren arabera, aurrerantzean, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua izango da, eta Euskadiko lankidetza eta elkartasun arloko kontsulta- eta partaidetza-organo gorena izango da, politika hori proposatzeko, irizpena emateko eta haren jarraipena egiteko gaitasunarekin.

La Ley 3/2024, de 15 de febrero, de Cooperación y Solidaridad, modifica la denominación del Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo que pasa a denominarse Consejo Vasco de Cooperación y Solidaridad y lo define como el máximo órgano de consulta y participación en materia de cooperación y solidaridad de Euskadi, con capacidad de propuesta, dictamen y seguimiento de dicha política.

Lankidetzaren eta elkartasunaren arloko eskumena Lehendakaritzari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen Lehendakariaren 2024ko ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 4.2. artikuluaren arabera.

El área de cooperación y solidaridad ha sido atribuida a Lehendakaritza en virtud del artículo 4.2 del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2024ko azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren 4.2 artikuluan

El Decreto 388/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de

xedatutakoaren arabera, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikita dago, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez, Lankidetza eta Elkartasunari buruzko 2024ko otsailaren 15eko 3/2024 Legeak aldatutako 2008ko ekainaren 19ko 5/2008 Legean ezarritakoaren arabera, eta erakunde horri dagokio lankidetzaren eta elkartasunaren arloa.

Lehendakaritza en su artículo 4.2, establece que el ente público de derecho privado eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad está adscrito a Lehendakaritza-Presidencia de Gobierno, a través de la Secretaría General de Acción Exterior y Euskadi Global, en los términos establecidos en la Ley 5/2008, de 19 de junio, de creación de la misma, modificada por Ley 3/2024, de 15 de febrero, de Cooperación y Solidaridad, correspondiendo a este organismo el área de cooperación y solidaridad.

Hortik ondorioztatzen da, indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren arabera, Lehendakariari dagokiola Kontseilu horren presidentea izatea; izan ere, Lehendakaritzaren egungo egitura organikoan, haien izaera dela eta, Gobernuko kide bati lotuta dauden funtzio guztiak Lehendakariak berak bete behar ditu.

De todo ello se concluye que, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente, corresponde al Lehendakari ostentar la Presidencia de dicho Consejo, ya que en la actual estructura orgánica de Lehendakaritza, el conjunto de las funciones que, por su propia naturaleza, están vinculadas a un miembro del Gobierno, deben ser ejercidas por el propio Lehendakari.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikuluak xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako organoek Administrazio bereko beste organo batzuen esku utz ditzakete esleituta dituzten eskumenak. Gauza bera xedatzen du Euskadiko Sektore Publikoko 2022ko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeko 25. artikuluak.

De conformidad con lo establecido en el artículo 9 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, los órganos de las diferentes Administraciones Públicas pueden delegar el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en otros órganos de la misma Administración. En igual sentido se establece en el artículo 25 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.

Administrazio-jardunean arintasun eta eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia Lehendakaritzari atxikitzearen ondorioz, beharrezkoa da aipatutako Kontseiluaren Presidentetzari eskuordetzea esleitutako eskumenak.

Con el fin de lograr una mayor agilidad y eficacia en la actuación administrativa, y como consecuencia de la adscripción de eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad a Lehendakaritza, resulta necesario proceder a la delegación de las competencias atribuidas a la Presidencia del citado Consejo.

Horren guztiaren arabera, honako hau

En virtud de lo cual,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO

1. artikulua. –Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiko titularrari Lankidetzarako eta Elkartasunerako

Artículo 1. – Delegar en la persona titular de la Secretaría General de Acción Exterior y Euskadi Global, el ejercicio de las

Euskal Kontseiluaren presidentetzarekin lotuta Lehendakariari esleitutako eskumenak eskuordetzea.

2. artikulua. –Dekretu honen bidez eskuordetutako eskumenak edozein unetan eskuordetu ahal izango ditu organo eskuordetza-emaileak.

3. artikulua. –Xedapen honek emandako eskumenak eskuordetzan emateko onartutako ebazpen guztietan berariaz jaso beharko da gorabehera hori, eta Dekretu hau onartu den eguna eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu den eguna aipatu beharko dira.

4. artikulua. –Dekretu hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den eguna kontuan hartu gabe.

competencias atribuidas al Lehendakari en relación con la Presidencia del Consejo Vasco de Cooperación y Solidaridad.

Artículo 2. – Las competencias delegadas por el presente Decreto podrán ser objeto de avocación, en cualquier momento, por el órgano delegante.

Artículo 3. – En todas las resoluciones que se dicten en ejercicio de la delegación de competencias conferida por esta disposición deberá hacerse constar expresamente tal circunstancia, con mención de la fecha de aprobación de este Decreto y su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 4. – El presente Decreto entrará en vigor el día de la firma, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteizen, 2025 ekainaren 25ean